**<u>2015EKO MARTXOAREN 18AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA</u>**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.
**ARETOA**: Batzar Aretoa.
**EGUNA**: Hemezortzia.
**HILABETEA**: Martxoa.
**URTEA**: Bi mila eta hamabosta.
**HASIERAKO ORDUA**: Goizeko zortziak.
**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa
**DEIALDIA**: Lehena
**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Sei (6)
**MAHAIBURUA**: Koldo Agirre Mujika.

**BILDUAK**: Mª Mar Celaya González
Aitor Aldasoro Iturbe
Alfonso Segade González
Josi Insausti Mujika
Garbiñe Zurutuza Fernández

**IDAZKARIA**: Itziar Arostegi Apaolaza

**<u>1.- AURREKO AKTA</u>**. 2015eko otsailaren 11ko aktaren onespena.

2015eko otsailaren 11ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da, bildutakoek berarekiko zer esanik ez dutelako.

**<u>2.- OBRAK EGITEKO HITZARMENAK</u>**:

- <u>Bista Alai, 9ko bizilagunekin hitzarmena</u>.

Hitzarmenaren testua ezagutzera eman ondoren, bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

**<u>Lehenik</u>**. Jarraian transkribatzen den hitzarmenaren edukia onartzea.

**<u>Bigarren</u>**. Alkate jaunari baimena emate, hitzarmena sinatzeko.

"***SAGASTIGUTIA PARKEAREN MALDA EGONKORTZEKO HITZARMENA***

*Beasainen 2015eko martxoaren ....ean*

***BILDURIK***

*KOLDO AGIRRE MUJIKA jauna, Beasaingo Udalaren Alkate-Lehendakaria. Ekintza honetarako eskumena, Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikuluak ematen dio.*

*Jose Manuel Oyarbide Erro jauna, Martin Jose Oyarbide Erro jauna, Mª Gema Oyarbide Erro Andrea, Aitor Imaz Oyarbide jauna, Mikel Imaz Oyarbide jauna, Imanol Imaz Oyarbide jauna eta Idoia Imaz Oyarbide Andrea.*

*Bista Alai, 9ko Jabetza Erkidegoa, hau da:*

- *Jose Martin Turrientes Matxain jauna eta  Mª Purificación Mugica Eizmendi andrea, behean eskubian dagoen etxebizitzaren titularrak (Iparra).*
- *Pablo Cortes Iparraguirre jauna, ezkerrean dagoen etxebizitzaren titularra (Hegoa).*
- *Alaia Mujika Munduate andrea eta Hector Rey Sobrian jauna lehenengo solairuan eskubian dagoen etxebizitzaren titularrak.*
- *Mª Concepción Aldasoro Sarasola andrea , lehenengo solairuan ezkerrean dagoen etxebizitzaren titularra.*
- *Jose Javier García García jauna, bigarrengo solairuan eskubian dagoen etxebizitzaren titularra.*
- *Mª Sabina Larrañaga Maiz andrea, bigarrengo solairuan ezkerrean dagoen etxebizitzaren titularra.*

***AURREKARIAK***

***I.-*** *Azken denboraldian udaletxean kexak aurkeztu dira, Bista Alai, 9ko eraikinaren atzealdean dagoen maldaren egoera dela eta.*

***II.-*** *2015eko otsailaren 25eko datarekin, udal aparejadoreak ondorengo txostena eman du, aipatutuako maldari buruz:*

*"Con fecha 9 de junio de 2013 y a raíz de unas intensas lluvias sufridas en esos días, la ladera del parque SAGASTIGUTIA sufre unos daños en las proximidades del edificio de viviendas del nº 9 de BISTA ALAI KALEA.*
*Se trata de un talud en excavación con materiales de tipo rocoso, constituido por limolitas y margas con intercalaciones de areniscas, diferenciándose los primeros 1,50 m (cabeza talud) con roca muy fracturada y alterada con intercalaciones arcillosas y abundante afección de raíces.*
*Se han podido observar que las discontinuidades rocosas tienen una dirección NW-SE y con inclinaciones altas hacia el SW, concretamente N 30 E con buzamientos de 75-80º hacia el SW, asimismo también se han detectado diversas juntas con inclinaciones tanto al SW como al NW.*
*Se observa humedad en la zona de pie de talud.*

*Durante el periodo desde que se produjo el desprendimiento hasta el mes de enero de 2015, el talud no ha sufrido modificaciones sustanciales si bien no se puede descartar que en el mismo se produzcan nuevos desprendimientos de tierras que pudieran afectar a los vecinos del inmueble, debido principalmente a la meteorización y fracturación de la roca."*

***III.-*** *Bista Alai, 9ko eraikina berea den terrenotaz inguratuta dago eta horrek esan nahi du Jabetza Erkidegoaren elementu amankomuna dela. Eraikin horrek atzealdetik, Juan Jose Oyarbide Sarriegui eta Rosario Erro Espelosin jaun-andrearen*

*oinordekoen terrenoarekin muga egiten duela eta terreno horren ezpondak egonkortasuna galdu duela eta meteorizatzen joan dela. Terreno hori goikaldetik, gune librerako toki sistema eratzen duen Sagastigu parkearen barruan dago.*

***IV.-*** *Adierazi den moduan, nahiz eta afektatutako terrenoak pribatuak izan, terreno horren ezponda aisialdi publikorako den Sagastigutia parkearen maldetako bat osatzen duenz, bidezkoa ikusi da jabeekin adostasun batera iristea ezpondaren egonkortasuna lortzeko eta horren ondorioz, Bista Alai, 9ko bizilagunentzat nahiz Sagastigutia parketik ibiltzen direnentzat segurtasun baldintzak bermatzeko.*

***V.-*** *Beraz, bi aldeek elkarri aitortzen diote kontratatzeko ahalmena eta dokumentu hau idazten dute ondorengo*

***ESTIPULAZIOEKIN***

***Lehenik****. Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:*

*1.- Sagastigutia parkearen aipatutako ezponda egonkortzeko proiektua enkargatzea.*

*2.- Obra zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioa kontratatzea.*

*3.- Obrak lizitatzea eta exekutatzea.*

***Bigarren****. Aipatutako jardueren kostua gutxi gorabehera, 37.750 €koa da (BEZ barne) eta kostu horren sailkapena ondorengoa da:*

*1.- Obrak egikaritzeko proiektua egitearen ordainsariak: 5.750 €.*

*3.- Obra-zuzendaritza: 3.100 €*

*4.- Segurtasun eta Osasun Koordinazioa: 1.000 €*

*5.- Obrak exekutatzeko aurrekontua: 27.900 €*

*Diru kopuru hori, ordea, orientatiboa da, obren kostu erreala obren behin betiko likidaziotik ondorioztatzen dena izango delako.*

***Hirugarren****. Horren guztiaren finantziazioa, hiru zati berdinetan egingo da.*

***Laugarren****. Dagozkien obra-ziurtagiriak aurkeztu eta onartu ahala Udalak, aipatutako proportzioan faktura emango du, Juan Jose Oyarbide Sarriegi eta Rosario Erro Espelosin jaun-andrearen oinordekoen izenean eta Bista Alai, 9ko bizilagun bakoitzaren izenean, aurreko klausularen arabera ordainketa egiteko.*

*Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatzen dute, goiburuan adierazitako data eta lekuan.*"

- Urbialde plazako 1, 2, 3, 4, 5 eta 6ko bizilagunekin hitzarmena.

Hitzarmenaren testua ezagutzera eman ondoren, bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

**Lehenik**. Jarraian transkribatzen den hitzarmenaren edukia onartzea.

**Bigarren**. Alkate jaunari baimena emate, hitzarmena sinatzeko.

*"**BEASAINGO UDALA ETA 1, 2, 3, 4, 5 eta 6KO JABETZA ERKIDEGO OROKORRAREN ARTEKO HITZARMENA, URBIALDE PLAZA BERRURBANIZAZEKO***

*Beasainen 2015eko matxoaren 23an*

***BILDURIK***

*KOLDO AGIRRE MUJIKA jauna, Beasaingo Udalaren Alkate-Lehendakaria. Ekintza honetarako eskumena, Toki Araubidearen Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21,1b) artikuluak eta 2015eko martxoaren 18an Gobernu Batzordearen hartutako erabakiak ematen die.*

*FRANCISCO JESUS GOIA DEL AMO, Urbialde plazako, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6ko Jabetza Erkidego Orokorraren (IFK: H-20455762), Lehendakaria. Ekintza honetarako baimena Erkidegoaren 2014-04-02ko aktan jasota dago.*

***AURREKARIAK***

***I.-** Aspalditik ari dira udaletxean kexak jasotzen, Urbialde plazaren egoera txarraren inguruan eta egoera horrek plaza azpian dauden garajeetan sortzen dituen filtrazioen inguruan.*

***II.-** Horrezaz gain, Urbialde plaza 1, 2, 3, 4, 5 eta 6ko jabekideak, etxebizitza, lokal eta garaje eraikinaren sustatzailearen (PROMOCIÓN INDUSTRIAL LIGERA, S.A.) eta obra-egikaritze zuzendaritza lanetan ibili zen aparejadorearen aurka demanda aurkeztu zuten bide judizialean, dauden akatsak zuzentzeko eskatuz. Azkenean, ordea, ez zen inolako ebazpen judizialik izan gatazkan zeuden bi aldeek akordio batetara irisi zirelako, baieztatu zenean akatsak ez zetozela bakarrik obraren exekuziotik, baizik eta egoera kaxkar horretan eragina izan duela baita ere Udalak plaza horri eman dion erabileragatik.*

*Bizilagunek demanda bertan behera utzi zuten eta demandatutakoek Jabetza Erkidego Orokorrari 100.000 €ko diru kopurua ordaintzea onartu zuten eta ordaindu egin zioten.*

***III.-** Udalak esandakoa kontutan izanda, plazaren egoerari eta egoera txarra eragin duen zergatiei buruz GAUSARK Arquitecturari txostena emateko enkargatu zion. Txosten irailaren 2013koa da eta ondorioak hauek dira:*

*"1.- La solución constructiva ejecutada en la plaza, no ha sido la definida en el Proyecto de Ejecución.*

*2.- Se ha realizado una solución constructiva con un material impermeabilizante que a día de hoy, se encuentra degradado en una amplia zona de la actuación ejecutada.*

*3.- No es posible la causa exacta por la que se ha degradado tanto la lámina de impermeabilzación y ni porque la solución constructiva ejecutada según lo visto y descrito en la cata 1, no coincide exactamente en las demás catas realizadas.*

*4.- No existe información de las condiciones de la lámina de impermeabilización antes de finalizar el plazo de garantía otorgado por la empresa fabricante e instaladora, por lo que no podemos concretar, si hasta la fecha de caducidad de la garantía, las condiciones de impermeabilidad coincidían con las descritas en la correspondiente ficha técnica.*

*5.- Sobre el pavimento se han desarrollado usos y actividades poco acordes con la solución constructiva ejecutada.*

*6.- El mantenimiento del pavimento y mobiliario urbano de la plaza, no parecen haber sido los más idóneos.*

*7.- La falta de diligencia a la hora de concretar las reparaciones a realizar (20 años después), han hecho que se llegue a una situación realmente insostenible, cuando de haberlo hecho con anterioridad, seguramente podrían haberse adoptado soluciones de carácter parcial.*

*8.- Nos es francamente imposible, adjudicar la situación actual a una sola causa y aun sólo responsable."*

***IV.-*** *Urbialde plazako 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 eraikinaren obra berriaren aitorpenean (1993ko martxoaren 3ko eskritura publikoa), ondorengoa esaten du:*

*"Igualmente el inmueble cuenta con una terraza de propiedad privada y de uso público, que discurre entre los Bloques Norte y Suroeste y cuyos gastos, de acuerdo con el Convenio Urbanístico pactado entre la Sociedad Promotora y el Ilustre Ayuntamiento de Beasain, corresponde* ***al Ayuntamiento****, los de limpieza y mantenimiento de los materiales de acabado superficial existentes, así como jardinería,* ***hasta las capas impermeables****, siendo por cuenta y riesgo de la* ***Comunidad de Propietarios****, el mantenimiento, conservación y arreglo* ***a partir de estas capas impermeables****, incluyéndolas en la forma prevista posteriormente.*

*Además tiene unos porches en planta baja a nivel de la calle Oriamendi o nivel B, y en terraza privada de uso público y que igualmente son de uso público, sometiéndose, en cuanto a cuidado, reparación y mantenimiento a los criterios anteriormente expresados.*

*Sin perjuicio de lo dispuesto en los dos párrafos anteriores, los gastos de conservación, mantenimiento y reparación de la* ***totalidad de la cubierta*** *del inmueble,*

*es decir, tejado de los dos bloques o seis portales, así como **terrazas**, tanto la que es elemento común y situada al Norte del Bloque grande o Norte como **la que es propiedad privada y de uso público y situada entre ambos Bloques**, serán satisfechos en proporción a sus respectivas cuotas por todos los **dueños de cualquier parte privativa del inmueble**.”*

***V.-*** *Hori horrela izanda ere, eraikin horretako jabekideekin akordio batetara iritsi da Udala, plazaren konponketari eta finantziazioari buruz.*

***VI.-*** *Horren ondorioz, bi aldeek elkarri aitortzen diote kontratatzeko ahalmena eta dokumentu hau idazten dute, ondorengo*

***ESTIPULAZIOEKIN***

***Lehenik***. *Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:*

*1.- Urbialde plaza konpontzeko proiektua enkargatzea.*

*2.- Obra zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioa kontratatzea.*

*3.- Obrak lizitatzea, 2015. urteko uztailean exekutatu ahal izateko.*

*4.- Urbialde plazako, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 eraikinaren administraria den EKAITZ BULEGOAK, S.L.ri obren esleipena eta esleipen-prezioa jakinaraztea, berak jabeei eskatzeko dirua aurreratzea, ordainketak egin ahal izateko.*

***Bigarren***. *Aipatutako jardueren kostua, 682.157,96 €koa da (BEZ barne) eta kostu horren sailkapena ondorengoa da:*

*1.- Obrak egikaritzeko proiektua egitearen ordainsariak: 21.175,00 €.*

*2.- Obra-zuzendaritza: 19.783,50 €*

*3.- Segurtasun eta Osasun Koordinazioa: 1.694,00 €*

*4.- Umeen jokuak eta goma: 52.604,33 €*

*5.- Obrak exekutatzeko aurrekontua: 586.901,13 €*

*Diru kopuru hori, ordea, orientatiboa da, obren kostu erreala obren behin betiko likidaziotik ondorioztatzen dena izango delako.*

***Hirugarren***. *Horren guztiaren finantziazioa, modu honetan egingo da:*

- *Urbialde plazako eraikinaren sustatzaile/aparejadoreari dagokiona: 100.000 €.*
- *Umeen jokuei eta gomari dagokion kostua osotasunean, Udalaren kontura izango da.*
- *Gelditzen dena, Jabetza Erkidego eta Beasaingo Udalaren artean, erdi bana izango da.*

***Laugarren***. *Dagozkien obra-ziurtagiriak aurkeztu eta onartu ahala, Udalak Jabetza Erkidego Orokorraren (IFK: H-20455762), izenean faktura emango du eta EKAITZ BULEGOAri (Domingo Unanue kalea, 3 20240 Ordizia) jakinaraziko dio aurreko klausularen arabera ordainketa egiteko.*

***Bosgarren***. *Jabetza Erkidego Orokorra izango da baita ere Udalari ordainduko diona eraikinaren sustatzaile/aparejadoreari dagokiona, hark jadanik jaso duelako hauei dagokiona (ikus II aurrekaria).*

***Seigarren***. *Etorkizunean plaza konpontzeko erabiliko den irizpidea, Urbialde plazako 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 eraikinaren obra berriaren aitorpen eskrituran jartzen duena jarraituko da.*

*Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek dokumentu hau bikoizturik sinatzen dute, goiburuan adierazitako data eta lekuan.*"

**3.- OBRAK KONTRATATZEA**. Plegu teknikoa eta administratiboa kontratatzea eta lizitazio deialdia egitea:

a.- Erretiratuen etxean zimentuak egonkortzeko obrak.

Ezagutzera eman da 2015eko martxoaren 16an hirigintza batzordeak egindako proposamena, hau da:

"*Lehenik. JON PAYER GUAL jaunak idatzitako, Erretiratuen Etxeko azpi-berritze obrei buruzko Proiektua onartzea.*

*Bigarren. Erretiratuen Etxeko azpi-berritze obrei buruzko Proiektuaren obrak exekutatzeko baldintza plegua onartzea eta obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea.*

*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin*

*2.- Izapidetzea: arrunta*

*3.- Lizitazio prezioa: 107.604,56 € BEZ kanpo, 130.201,52 € BEZ barne.*

*4.- Egikaritze epea: 7 aste.*

*5.- Kaudimen tekniko edo profesionala eta ekonomikoari buruzko agiriak:*

1. *Obrak egikaritzeko erabilgarri dituen teknikarien edo unitate teknikoen zerrendari buruzko adierazpena, enpresakoak izan zein ez izan; bereziki, kalitate-kontrolaz arduratzen diren langileak zein diren adierazi beharko da, dagozkion egiaztagiriak gaineratuta.*
2. *Enpresariaren eta enpresako zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak eta, zehazki, obrako arduradunena.*

3. *Enpresariak kontratua gauzatzean aplikatu ahal dituen ingurumen arloko kudeaketa-neurrien adierazpena.*
4. *Enpresak urtean, batez beste, dituen langile kopuruari buruzko eta azken hiru urteetan zuzendaritzako langileek izan duten garrantziari buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiriak gaineratuta.*
5. *Lanak egiteko erabiliko diren makina, material eta ekipamendu teknikoei buruzko adierazpena, dagozkion egiaztagiriak atxikita.*
6. *Erantzukizun zibileko asegurua (600.000,00 €).*

*6.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.*

*7.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren azaltzen dena.*

*8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira  iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan, 13,00etan.*

*9.- Adjudikazio irizpideak:*

*- Proposamen ekonomikoa 90 puntu.*

*- Euskera: 5 puntu.*

*- Berdintasuna: 5 puntu.*

*10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

*11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*"

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- Urbialde plaza berrurbanizatzeko obrak.

Ezagutzera eman da 2015eko martxoaren 16an hirigintza batzordeak egindako proposamena, hau da:

"*Lehenik. GAUSARK, S.L.ek idatzitako eta 2015ko martxoko data duen Urbialde plaza berrurbanizatzeari buruzko Proiektua onartzea.*

*Bigarren. Urbialde plaza berrurbanizatzeari buruzko Proiektuaren obrak exekutatzeko baldintza plegua onartzea eta obrak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea.*

*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin*

*2.- Izapidetzea: arrunta*

*3.- Lizitazio prezioa: 528.516,92 € BEZ kanpo, 639.505,47 € BEZ barne.*

*4.- Egikaritze epea: 4 hilabete.*

*5.- Klasifikazioa: G taldea, 7 azpitaldea eta d kategoria.*

*6.- Espedientea: administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoen pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.*

*7.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren azaltzen dena.*

*8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan, 13,00etan.*

*9.- Adjudikazio irizpideak:*

*- Proposamen ekonomikoa 90 puntu.*

*- Euskera: 5 puntu.*

*- Berdintasuna: 5 puntu.*

*10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

*11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte*."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

c.- J. M. Iturriotz-Joan XXIII igogailua, pasagunea eta urbanizazio osagarria eraikitzeko proiektuaren obrak esleitzea.

Ezagutzera eman da 2015eko martxoaren 16ko Kontratazio mallaren proposamena:

"***AURREKARIAK***

***1.-*** *2015eko otsailaren 2an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, J. M. Iturriotz-Joan XIII igogailua, pasagunea eta urbanizazio osagarria eraikitzeko proiektuaren (urbanizazio-proiektuaren separata) obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 310.451,87 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 3 hilabete.*

***2.-*** *Deialdia, 2015eko otsailaren 5ean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitaziora bost enpresa aurkeztu ziren: IPARRAGIRRE ERAIKUNTZAK, JOSE MARIA SUQUIA IZASKUN, CAMPEZO, CONSTRUCCIONES ARTZAMENDI eta CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L.*

***3.-*** *Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, ontzat eman zen lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa.*

***4.-*** *2015eko martxoaren 11n, plikak (2 zenbakiko kartazala), irekitzeari buruzko ekintza burutu zen, ondorengo emaitzarekin:*

JOSE MIGUEL ITURRIOTZ-JOAN XXIIIko IGOGAILUA, PASAGUNEA ETA URBANIZAZIO OSAGARRIA ERAIKITZEKO PROIEKTURAKO LANAK
OBRAS PARA EL PROYECTO DE ASCENSOR, PASARELA Y URBANIZACIÓN COMPLEMENTARIA EN JOSE MIGUEL ITURRIOZ

| | | | |
|---|---|---|---|
| DATOS DE LA LICITACIÓN | Espe Kodea Nº Expte | 2015PROB0002 | **EKINTZA PUBLIKOA**<br>**ACTO PUBLICO** |
| | Epea - Plazo (MESES) | 3 | |
| | **KO LIZITAZIOA - LICITACION BASE** | **310.451,88** | |
| | BEZ - IVA | **21%** | |
| | **BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA** | **65.194,89** | |
| | **OROTORA - TOTAL** | **375.646,77** | |
| | **TEKO BEHERAPENA - BAJA MEDIA** | **-13,25%** | |

| | | HURRENKERA - Nº ORDEN | HURRENKERA - Nº ORDEN | SKAINTZAILEAK - OFERTANTES | OINARRI-ESKAINTZA - OFERTA BASE | BEZ - IVA | BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA | OROTORA - TOTAL | PLAZO (hilabete - meses) | % Subcontratación | EUSKERA | IGUALDAD |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ESKAINTZA ONARTUAK - OFERTAS ADMITIDAS | 85.4 ARTIKULUAREN ARABERA BARRUA GELDITUTAKO ESKAINTZAK - OFERTAS CALIFICADAS PARA LA | 1 | 763 | IPARRAGUIRRE | 259.429,83 | 21% | 54.480,26 | **313.910,09** | 3 | ** | SI | NO |
| | | 2 | 766 | J.M. SUKIA | 291.177,08 | 21% | 61.147,19 | **352.324,27** | 3 | 37,00% | SI | NO |
| | | 3 | 813 | CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS S.A. | 253.644,99 | 21% | 53.265,45 | **306.910,44** | 3 | 48,86% | SI | SI |
| | | 4 | 814 | ARTZAMENDI | 268.250,26 | 21% | 56.332,55 | **324.582,81** | 3 | ** | NO | NO |
| | | 5 | 815 | CNES OLABARRI | 274.160,05 | 21% | 57.573,61 | **331.733,66** | 3 | 48,92% | SI | NO |

*Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, udal aparejadoreak ondorengo txostena eman du:*

*Del análisis de las ofertas económicas se señala lo siguiente:*

- *Que dos empresas, Cnes IPARRAGIRRE y Cnes ARTZAMENDI, no señalan en sus ofertas el porcentaje de subcontratación que ofertan.*
- *Que ninguna oferta ha incurrido en presunción de BAJA TEMERARIA.*
- *Que la empresa CAMPEZO OBRAS y SERVICIOS S.A., no ha presentado los precios unitarios y descompuestos que menciona el Pliego. No obstante, y tras comunicación telefónica con el representante de la empresa, se ha remitido por e-mail estos documentos.*
- *Que la empresa CAMPEZO OBRAS y SERVICIOS S.A., no ha concretado los subcontratistas que intervendrán en las obras, limitándose a señalar varios para cada uno de los trabajos a realizar.*

*Aplicando los baremos establecidos en el pliego de condiciones, se puntúan las ofertas de acuerdo con la tabla adjunta:*

JOSE MIGUEL ITURRIOTZ-JOAN XXIIIko IGOGAILUA, PASAGUNEA ETA URBANIZAZIO OSAGARRIA ERAIKITZEKO PROIEKTURAKO LANAK
OBRAS PARA EL PROYECTO DE ASCENSOR, PASARELA Y URBANIZACIÓN COMPLEMENTARIA EN JOSE MIGUEL ITURRIOZ

| DATOS DE LA LICITACIÓN | | | EKINTZA PUBLIKOA ACTO PUBLICO |
|---|---|---|---|
| | Espe Kodea Nº Expte | 2015PROB0002 | |
| | Epea - Plazo (MESES) | 3 | |
| | KO LIZITAZIOA - LICITACION BASE | 310.451,88 | |
| | BEZ - IVA | 21% | |
| | BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA | 65.194,89 | |
| | OROTORA - TOTAL | 375.646,77 | |
| | TEKO BEHERAPENA - BAJA MEDIA | -13,25% | |

| HURRENKERA - Nº ORDEN | HURRENKERA - Nº ORDEN | SKAINTZAILEAK - OFERTANTES | OINARRI-ESKAINTZA - OFERTA BASE | BEZ - IVA | BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA | OROTORA - TOTAL | PLAZO (hilabete - meses) | % Subcontratación | EUSKERA | IGUALDAD | PUNTUACION | EUSKERA | IGUALDAD | TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 763 | IPARRAGUIRRE | 259.429,83 | 21% | 54.480,26 | 313.910,09 | 3 | ** | SI | NO | 87,99 | 5,00 | 0 | 92,99 |
| 2 | 766 | J.M. SUKIA | 291.177,08 | 21% | 61.147,19 | 352.324,27 | 3 | 37,00% | SI | NO | 78,40 | 5,00 | 0 | 83,40 |
| 3 | 813 | CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS S.A. | 253.644,99 | 21% | 53.265,45 | 306.910,44 | 3 | 48,86% | SI | SI | 90,00 | 5,00 | 5 | 100,00 |
| 4 | 814 | ARTZAMENDI | 268.250,26 | 21% | 56.332,55 | 324.582,81 | 3 | ** | NO | NO | 85,10 | 0,00 | 0 | 85,10 |
| 5 | 815 | CNES OLABARRI | 274.160,05 | 21% | 57.573,61 | 331.733,66 | 3 | 48,92% | SI | NO | 83,27 | 5,00 | 0 | 88,27 |
| | | BATEZ BESTEKO ESKAINTZA (5 ESKAINTZA) OFERTA MEDIA (5 OFERTAS) | 269.332,44 | | | 325.892,25 | | | | | | | | |
| | | Eskaintza kopurua - Número de ofertas | 5 | | | | | | | | | | | |

*(1) ESKAINTZA NEURRIGABEAK - OFERTA DESPROPORCIONADA

PUNTUACION OFERTA B =90*( Importe oferta A /Importe oferta B)

*Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo proposamena egiten dio:*

***Lehenik**. J. M. Iturriotz-Joan XIII igogailua, pasagunea eta urbanizazio osagarria eraikitzeko proiektuaren (urbanizazio-proiektuaren separata) obrak, CAMPEZO OBRAS Y SERVICIOS, S.A.ri esleitzea, 253.644,99 €ko prezioan. Guztira, 306.910,44 € (BEZ barne), egikaritze epea, hiru hilabetekoa izanik.*

***Bigarren**. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:*

- *Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantzan eguneratuta egotearen agiriak.*
- *12.682,25 €ko behin betiko fidantza eratzea.*
- *Azpikontratazioari buruzko informazioa, Sektore Publikoaren Kontratuak arautze dituen Legearen Testu Bateratuan aurreikusitako 227 artikuluaren arabera.*

***Hirugarren**. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanez. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.*”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## 4.- ALKARTASUNA LIZEOKO OBREN LIKIDAZIOA.

Ezagutzera eman da 2015eko martxoaren 18an, udal aparejadoreak emandako ondorengo txostena:

"**ANTECEDENTES:**

Las obras del LIZEO ALKARTASUNA se han realizado de acuerdo con el pliego de condiciones administrativas, y fuera del plazo establecido por el órgano de contratación.
Cabe señalar los hechos siguientes:

- Que el importe de la licitación ascendía a la cantidad de 99.007,71 €. SIN IVA (119.799,34 IVA INC.)
- Que la obra fue adjudicada por un importe de 72.969,43 € SIN IVA (88.293,02 CON IVA), resultando ésta una baja con respecto a la licitación del -26,29 %

Durante la ejecución de las obras, la Dirección del centro solicitó el que se acometieran unas obras de cambio de ventanas en la zona de comedor. Por error en la anterior comisión de urbanismo, no se incluyó el importe del este trabajo.
Llevada a cabo la medición de la obra y su liquidación correspondiente, esta da lugar al siguiente cuadro:

| | | |
|---|---|---|
| OBRAS EN LIZEO ALKARTASUNA | | |
| CONTRATISTA: | **CNES PEDRO IPARRAGUIRRE S.L.** | |
| Fecha Incio obras | **00/01/1900** | |
| Fecha Final obras | **00/01/1900** | |

| PROYECTO | | | CERTIFICACIONES | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | IMPORTES DE | | CERTIFICACION | | IMPORTE DE EJECUCION MATERIAL | | IMPORTE DE EJECUCION CONTRATA | | | IMPORTE DE IVA | | TOTAL | | % EJECUCION s/ adjudicacion | |
| OBRA | PRESUPUESTO | ADJUDICACION | Nº | Fecha | INDIVIDUAL | a ORIGEN | SEG y SALUD | INDIVIDUAL | a ORIGEN | INDIVIDUAL | a ORIGEN | INDIVIDUAL | a ORIGEN | INDIVIDUAL | a ORIGEN |
| OBRAS EN LIZEO ALKARTASUNA | **119.799,34** | **88.293,02** | 1 | 31/01/2014 | 60.916,03 | 60.922,74 | 0,00 | 72.490,08 | 72.490,08 | 15.222,92 | 15.222,92 | **87.712,99** | 87.712,99 | **99,34%** | **99,34%** |
| | | | 2 | | | | | | | | | | | | |
| | | | 3 | | 3.181,71 | 3.181,71 | 0,00 | 3.786,23 | 3.786,23 | 795,11 | 795,11 | **4.581,34** | 4.581,34 | **5,19%** | **5,19%** |
| | | | 4 | | | | | | | | | | | | |
| | | | 5 | | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | | | SUMA ACUMULADA | 92.294,34 | | | **104,53%** |

Como se puede observar, la obra se ha desviado en su totalidad un 4,53 %, y se pretende justificar mediante el presente informe, las razones que han llevado a que se produzca este hecho:

**INFORME:**

1. El desvío de obra propiamente dicho corresponde al siguiente detalle:

| Importe Ejecución Contrata | | | |
|---|---|---|---|
| Adjudicación | Certificado | Diferencia | % Aumento |
| 88.293,02 | 92.294,34 | 4.001,32 | 4,53 % |
| | | | |

2. Durante la ejecución de las obras, se ha llevado a cabo las siguientes partidas no contempladas en el proyecto:

| Partida | Petición de | Importe |
|---|---|---|
| Partidas no contempladas en el proyecto,<br>• Nuevas Ventanas | Dirección del Centro | 4.581,34 |
| Proyecto.<br>• Ahorro en partidas | | 580,02 |
| **SUMA TOTAL EJECUCION CONTRATA (IVA INC)** | | **4.001,32** |

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**<u>5.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA</u>**. Beasaingo udalaren trafikoko eta TAOko multen borondatezko bilketa eta tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru sarreren betearazpideko zergabilketarako elkarlana.

Ezagutzera eman da, Hazienda Batzordeak 2015eko martxoaren 16an egindako proposamena:

"***<u>Lehenik</u>****. Deialdi publikoa egitea, Beasaingo Udalaren trafikoko eta TAOko multen borondatezko bilketa eta tributuen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarreren betearazpideko zergabilketareko elkarlana kontratatzeko, horretarako baldintza administratiboa oanrtuz.*

*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin*

*2.- Izapidetzea: arrunta*

*3.- Lizitazio prezioa: Kontratuaren prezioa (hasiera batean ezin dena zenbatekotu) adjudikatariak egindako lanen arabera eta aurrera eramandako gestio eta zerbitzu hoiek lortutako emaitzen arabera sortuko da.*

*Kalkuluetarako ondorengoa adierazten da:*

- *Trafikoko eta TAOko isunen bilketa borondatezko bidean, azken 2 ekitalditan:*

*2013.- Onartutako eskubideak: 138.530,52 € / Kobroak: 60.161,68 €*
*2014.- Onartutako eskubideak: 188.946,30 € / Kobroak: 114.014,44- €*

- *Betearazpideko bilketa azken 2 ekitalditan:*

*2013.- Printzipala : 184.230,42 € /  Berandutza interesak: 11.007,71 €*
*2014.- Printzipala: 229.011,79 € / Berandutza interesak: 13.854,35 €*

*Lan horregatik jasoko da:*

*A) <u>Borondatezko bideko bilketa</u>:*

*A.1.- Kobratutakoaren %35era arte.*

*B) <u>Betearazpideko zergabilketa:</u>*

*B.1.- Dirutan jasotako zenbatekoen printzipalaren gaineko %20raino, BEZ kanpo.*

*B.2.- Berandutza Korrituak:*
*Betearazpideko epealdian dirutan kobratutako berandutza interesen %40raino, horren kalkulo, likidazio, notifikazio eta kobrantzarako esleipendunak gauzatutako gestioen kontraprestazio moduan (BEZ kanpo).*

*B.3.- Kobraketa espezietan gauzatzen bada, jasoko den kopurua, aurreko ehunekoen aplikazioaren arabera kalkulatuko da, baina beti ere, bi kontzeptuen gehiketak 18.000,00 euroko gehiengo muga izango du (BEZ kanpo).*

*Udalaren kargurakoak izango dira prozeduraren kostuak.*

*4.- Egikaritze-epea: urte bete, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.*

*5.- Klasifikazioa: L taldea, 2 Azpitaldea eta B kategoria.*

*6.- Espedientea: administrazio-baldintzen plegua eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.*

*7.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren azaltzen dena.*

*8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan, 13,00ak arte.*

*9.- Adjudikazio irizpideak:*

- *Proposamen ekonomikoa: 50 puntu.*
- *Memoria: 40 puntu.*
- *Programa informatikoa: 10 puntu.*

*10.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*

*11.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*"

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**<u>6.- IGARTZA OLETAKO GARAJEA, 66 ZENBAKIA</u>**. Eslelpena proposamena.

Ezagutzera eman da, 2013ko urtarrilaren 29an Gustavo Urmeneta Ajona jaunak egindako eskaeraren ondorioz, Igartza Oletako 66. zenbakia duen

garaje-plaza saltzeko, Udalak kasu hauetarako ezarrita duen prozedura jarraitu zela, baina inolako emaitzarik lortu gabe.

Aipatutako garaje-plaza esleitzeko zozketan parte hartu zuten zortzi pertsonek, azkenik adierazi zuten plaza horretaz interesatuta ez zeudela.

Jabeak saltzeko duen nahiari irtenbide bat emate arren, jakinarazi zitzaion Udala prest zegoela, sinatutako idatzi baten bidez berak esandakoari saltzeko baimena emateko, beti ere, idatzia bi aldeek sinatuta egon ezkero.

Jakinarazpen horretan esan zitzaion salmentaren prezioa, 2012ko azaroa bitarte 18.078,75 €tan kalkulatuta zegoena, eguneratu egin beharko litzatekeela eskualdaketa egin aurreko hilabetearekiko eta eroslearen kontura izango liratekeela, notaritza eta erregistroko gastuak naiz sortu daitezkeen zergak.

2015eko otsailaren 26an, idatzia aurkeztu zen Gustavo Urmeneta Ajona jaunak eta Alberto Martin Arina jaunak eta Alicia Gallardo Murguiondo andreak sinatuta, adieraziz azken hauek prest zeudela garaje-plaza erosteko, baina beraien artean finkatutako prezioa, 16.500 €koa zela.

Horren ondorioz, 2015eko martxoaren 16an, Hazienda Batzordeak proposatuta, ondorengo erabakia hartu da:

Igartza Oleta barneko plazan kokatuta dagoen lurrazpiko 66. zenbakia duen garaje-plazaren titularra den, Gustavo Urmeneta Ajona jaunak Alberto Martin Arina jaunari eta Alicia Gallardo Murguiondo andreari, hamasei mila bostehun eurotan (16.500 €) eskualdatzea onartzea.

Garaje-plaza hau saltzeko zegoen zailtasunagatik (kokapena), izan ere, ondorengo eskaerak betiko moduan ebatzi dira, onartu egin da salbuespen gisa beraiek proposatutako prezioa onartzea. Aurrerantzean egiten diren eskaerekiko betidanik erabili den prozedura jarraituko da eta prezioa ere betikoa izango da.

**7.- IGARTZA MULTZO MONUMENTALAREN KUDEAKETA**: fidantza bueltatzeko eskaera.

Kultura eta euskara batzordeak proposatuta ondorengo erabakia hartu da aho batez:

“*AURREKARIAK*

*1- 2011ko martxoaren 3an, BEASAINGO UDALAk aurretiaz dagokion kontratazio espedientea tramitatu eta gero, baldintza pleguen araberako eta berak aurkeztutako eskaintzaren araberako administrazio kontratua sinatzen du Igartzako*

*Monumentu Multzoa kudeatzeko eta ustiatzeko DOLAREA HOTELA S.L.rekin bi urterako 2011ko martxoaren 15etik kontatzen hasita eta beste bi urterako luzapena sinatzeko aukerarekin.*

*Baldintza plegu hark, ustiatzailearen betebeharren artean sartzen zen katering zerbitzua eta horretarako BEASAINGO UDALAk ustiatzailearen eskura jarri zituen altzariak eta tresneria (2010IDBO0040 espediente zenbakia).*

*2- Aurretiaz, DOLAREA HOTELA S.L.k 3.000€ko behin betiko fidantza aurkeztu zuen.*

*3- 2013ko martxoaren 15ean sinatzen da kontratuaren luzapena beste urte beterako eta 2014ko urtarrilaren 13an jakinarazten zaio BEASAINGO UDALAren borondatea kontratu hori ez luzatzeko eta bere epemuga iristean, hau da, 2014ko martxoaren 15ean, bukatutzat emateko.*

*4- 2014ko maiatzaren 5ean IBAN MATE GARAIALDEk fidantzaren itzulketa eskatzen du eta 2014ko maiatzaren 28ko data duen idatzian jakinarazten zaio ezin zaiola itzuli bere eskura jarri ziren ondasunetako batzuk ez daudelako Igartzako Monumentu Multzoan. Horretarako, ondasunen inbentarioa ere bidali zitzaion (honekin lotutako, 2014ko maiatzaren 27ko data duen Kultura eta Euskarako teknikariaren txostenari aipatutako ondasunen erosketa fakturak erantsi zitzaizkion) eta 15 egun utzi zitzaizkion falta zirenak berrezartzeko. Epe hori berekin hitzez adostu eta gero luzatu egin zen eta eskatutako ondasun batzuk itzuli zituen.*

*5- Guztia berrezarri ez badu ere, 2015eko otsailaren 19an, IBAN MATE GARAIALDEk berriro eskatzen du fidantzaren itzulketa eta eskaera horri erantzuna emateko berrezarri dituen ondasunak zeintzuk diren ikusi da, eta dagokion balorazioa egin ondoren, hau da ondorioa:*

*- Berrezarri beharreko ondasunen balioa, 15.293,30€.*
*- Berrezarritako ondasunen balioa, 6.636,73€.*
*- Fidantzaren balioa, 3.000€.*

*6- 100 artikuluaren arabera, fidantzak, besteak beste, kontratuan aurreikusitako zerbitzuak behar bezala egikaritzeko beharrari erantzuten dionez fidantzaren konfiskatzea erabaki daiteke eta, hala eta guztiz ere, DOLAREA HOTELA S.L.k udal Ogasunari 5.656,57€ zor dizkio.*

*Horren ondorioz, Gobernu Batzordeak, ondorengoa*

*ERABAKI DU*
***Lehena-** 3.000€ko fidantza ez itzultzea eta diru hori zorraren zati bat kitatzeko erabiltzea.*

***Bigarrena-** DOLAREA HOTELA S.L.ri falta den zatiaren ordainketa eskatzea (5.656,57€).*"

## **8.- ESKAERA ETA GALDERAK**.

Eskaera eta galderetan honelakoak aurkeztu dira:

BIDEGORRIKO OBRAK

Aitor Aldasoro jaunak, bidegorriko obretan izandako desbideraketa dela eta eskatu du, kontratistari deia egitea hurrena egiten den hirigintza batzordean parte hartzeko eta azaltzeko zer gertatu den.

Alkateak bere adostasuna azaldu du proposamenarekin.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “yo creo que el problema es político, pero no es del contratista. Este ejecuta un trabajo y el Ayuntamiento tiene un problema para pagar al no haberse seguido el procedimiento correcto.

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “no creo que sea ese el único problema cuando todavía no se ha dado solución a la desviación surgida.”

Erabaki da, kontratistari hirigintza batzordera etortzeko gonbidapena luzatzea.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko zortziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.